

EFSaren txostena hegazti basatietan PHHG birusa zaintzeaz

EFSAk txosten bat argitaratu du European hegazti basatietan patogenotasun handiko hegazti gripearen (PHHG) zaintza aktiboa egitearen potentziala laburtuz. Alerta goiztiarreko sistema bat egitea proposatzen du txostenak, zaintza planean oinarritutako dena. Plana birus honen egoera epidemiologiko aldakorrera egokitzeko bezain malgua izan behar du; hala eginez gero, Europar Batasun osorako onura epidemiologiko nabarmena izango luke.

Ukrainan eta Georgian egin den landa-lanean **datu birologikoak eta ornitologikoak** aztertu dira eta argi geratu da PHHG azkar detektatzeko eta identifikatzeko laginketa-ahalmena eta logistika garatu daitezkeela.

EBn hegazti basatiak zaintzeko sare bat eraikitzea gomendatzen du txostenak, laginketa-nodoak hautatzeko tokiko aurrekari ornitologiko eta birologikoen datuak kontuan izanda, baina aldi berean egokitzeko malgutasunarekin, laginketak egin ahal izateko materialetara egokitzeko (hegazti basatiak, ehizako urmaelak, ingurumen-laginak, etab.), birusaren aldaketa epidemiologikoetara, laginketako ostalarien aldaketetara eta laginketak egiten diren urte-sasoietara egokitzeko.

Gainera, **birus enzootikoak zirkulazioan diren garaian** doitu egin behar da zaintza-sistema infekzio-boladak monitorizatzeko, hegazti migratzaileen mugimenduen arabera jarduerak gora egingo duela aurreikusten denean, birusari buruzko ohartarazpenak eman ahal izateko.

Amaitzeko, txostenak **zenbait eskualde proposatzen ditu, zaintza-sare hau diseinatzerakoan nahitaez kontuan izan** behar direnak.

Hegazti-gripea: prebentziorako neurri berriak Euskadin

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko AGINDUAREN bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripearen aurka hartu beharreko prebentzio-neurriak ezartzen dira.

Aurten EAE osoan zehar **hegazti basatietan H5N1 PHHG 22 foku jakinarazi dira**; hortaz, Euskadin aurten izandako intzidentzia kontuan hartuta, eta Euskadiko eskortako hegaztien ustiategietan gaixotasun horren kasuak ekiditeko, **hegazti-sektorea birusetik babesteko**

prebentzio-neurri batzuk aktibatu behar dira.

Neurriak **biosegurtasuna, zaintza aktiboa eta pasiboa eta erregistro eta erroldak indartzera bideratuta daude.** Agindu horren bidez, honako hauek **debekatu dira:**

- **Anseriformes eta Charadriiformes** aginduko hegaztiak **amu gisa** erabiltzea.
- Eskortako hegaztiak **aire zabalean elikatzea.**
- Hegazti basatiek sarbidea duten **ur-andeletatik** eskortako hegaztiei ura ematea.

Bestalde, aldeko arrisku-analisia jaso ondoren eta baimenean jasotzen den baldintza-agiria derrigorrez bete ondoren, **agintari eskudunek baimendu** beharko dituzte honako jarduera hauek:

- Eskortako edo itxitako **hegaztiak biltzea** (abere-lehiaketak, erakusketak eta kultura-ospakizunak).
- Eskortako hegaztiak **askatzea birpopulatzeko.**

Gainera, foru-aldundietako animalien osasun-arloko zerbitzu eskudunek:

- Hegazti-erroldak **egunera** ditzakete, **autokontsumokoak barne.**
- **Osasun-ikuskapenak** egin ditzakete, zaintza aktiboko sistemaren barruan beharrezkoa bada.

Bestalde, hegaztien **hilotzak** (bereziki espezie urtarrenak badira) aurkitzen dituen pertsona orori **lehenbailehen foru-aldundiei jakinarazteko** eskatzen zaio, beharrezko neurriak har ditzaten.

Hortaz, eta alde aurretik agintari eskudunei eta hegazti-sektoreari galdetu ondoren, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Agindu hau argitaratu du. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta **hurrengo egunean indarrean jarriko da, hau da, 2022ko abenduaren 17an.**

IAAPri buruzko informazio gehiago:

[Hegazti-gripea prebenitzeko neurri berriak Araban](#)

Arabako animalia-osasuneko agintari eskudunek patogenotasun handiko hegazti-gripea (PHHG) prebenitzeko neurriak hartu dituzte, Iruña Okan jasotako hegazti baten gorpuan H5N1 PHHG dagoela baieztatu ondoren.

Eusko Jaurlaritzak prentsa-ohar bat argitaratu du, eta bertan jakinarazi du **Neikerreko Animalien Osasun Laborategiak H5N1 patogenotasun handiko hegazti-gripearen (IAAP) kasu berri bat baieztatu duela Langraiz Okako** parke batean hilda aurkitu duten **antzara batean.**

Kasu berri horrekin, 3 foku detektatu dira aurten Araban. Probintziako beste bi hegazti-gripe fokuak Salburua inguruan (Gasteiz) aurkitu ziren antzaretan erregistratu ziren.

Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiak informazio-ohar bat argitaratu du, eta, horren bidez, hainbat biosegurtasun-neurri ezarri dira honako udalerrri hauetako ustiategi eta oilategi guztietan

(autokontsumokoak barne): **Iruña Oka, Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Legutio, Vitoria-Gasteiz, Zigoitia.**

Hegazti-gripeak hegaztiengan eta pertsonengan daukan arriskuaren ebaluazioa arina

Osasun Ministerioak ebaluazio arina argitaratu du foku berriek hegaztietan duten arriskuari eta pertsonen kasu berriei buruz, One Health ikuspegitik. Ebaluazioak ondorioztatu du hegaztietan foku berriak agertzeko arriskua oso handia dela oraindik, birusa oso hedatuta dagoelako basoko hegazti-espezieen artean. Bestalde, arriskua txikia da hegazti gaixoen eraginpean dauden ustiategietan esposizio okupazionala duten pertsonentzat eta oso txikia herritar orokorrentzat. Haragia edo arrautzak kontsumitzeagatiko arriskua hutsala da. Txostenenean birusagatik infektatuta egon ahal diren hegaztiak esposizioa duten pertsonentzako gomendioak ematen dira.

Osasun Alertak eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak (Osasun Ministerioaren menpe dago) hegazti-gripeak hegaztiengan eta pertsonengan daukan arriskuaren ebaluazioa arina argitaratu du. Ebaluazio hori egiteko arrazoia honako hau da: Espainian hegazti-ustiategi batean lan egiten duten pertsona batengan A hegazti-gripearen lehenengo kasua detektatzea (duela gutxi hegazti-gripearen agerraldia pairatu du). Ordura arte, gaixotasun horren bi kasu soilik detektatu ziren bi pertsonarengan mundu osoan, bata asintomatikoa eta bestea sintomatologia oso arinekoa.

2021-2022 aldian zehar, mundu-mailan hegazti-gripearen eraginik handiena erregistratu da hegaztietan; gainera, udako hilabeteetara luzatu da, eta hori ez da inoiz gertatu.

Mundu-mailan birusak duen esposizioa lotuta egon daiteke basoko hegaztiakiko duen etengabeko egokitzapenarekin. Halaber, gertakari hori ikusita, eta joan den udaberrian detektatutako fokuak aintzat hartuta, badirudi birusa eta gaixotasuna endemiko bihurtu direla gure inguruko basoko hegaztien artean. Horrez gain, egiaztatu da basoko hegazti autoktonoen artean transmititzeko gaitasuna duela.

Premisa horiek aintzat hartuta, ebaluazio horretan ondorioztatzen da **agerraldi berriak egoteko arriskua oso handia dela oraindik**. Agerraldi horiek eragin handia dute hegaztien osasunean eta galera handiak eragiten dituzte, hegazti-ustiategietan duten eraginaren ondorioz.

Hegazti-gripearen birusa hegaztiak gizakiei transmititzea gertakari ezohikoa da eta pertsonen arteko transmisioa oso ezohikoa. Duela gutxi argitaratutako ebaluazioaren arabera, detekzio berriak agertzeko arriskua **txikia** da hegazti gaixoeekin kontaktuan dauden pertsonentzat (kutsatutako abeltegietako langileak, al baitariak, ehiztariak, ornitologoak eta hegaztiak kontaktuan dagoen ingurumeneko edozein agente). Gainera, pertsonen artean transmititzeko gaitasun txikia dela eta,

herritar orokorrenzat dagoen arriskua **oso txikia** da. Bestalde, hegazti-haragia edo arrautzak kontsumitzearekin lotutako arriskua **hutsala** da.

Horrez gain, pertsonetan kasuak agertzekotan, bigarren mailako kasuak geratzeko aukera **oso txikia** da, gaixotasunaren kutsakortasunari buruz gaur egun eskuragarri dagoen informazio epidemiologikoa eta mikrobiologikoa dela eta. Bestalde, herritar orokorren artean giza gripearen eta H5N1 hegazti-gripearen arteko koinfekzioa gertatzeko aukera ere (birusaren berrantolaketa eragin eta gizakien arteko transmisiora egokitutako birus berri bat sortu ahalko luke) **oso txikia** da; dena den, aintzat hartu behar da hegazti-abeltegi-tako langileetan.

Ebaluazio honetan emandako gomendioen artean, honako hauek nabarmendu ahal dira:

- Zaintza-sistemak mantentzea, bai animalietan, bai pertsonetan, eta gaixotasunaren edozein susmoren berri al bait arinen ematea.
- Infektatuta egon daitezkeen hegazti-ekidako esposizioa murriztea.
- Biosegurtasun-neurriak indartzea, bereziki hegazti-ustategi-tako basoko hegazti-ekin kontaktua murriztera bideratutakoak.
- Hegazti-ekin kontaktuan egoten diren pertsoneri babeserako neurri egokiak gomendatzea animaliekin kontaktuan dauden uneetarako.
- Animalia infektatuen eraginpean egoteko arriskua duten talde okupazionalak urtaroko gripearen txertoa jartzeko gomendia indartzea.
- Jarduketa-protokoloak jarraitzea ustategietan dauden agerraldietan eta birusagatik infektatutako animalien eraginpean dauden pertsonentzat.
- Animalia-osasunaren, ingurumen-osasunaren, osasun publikoaren eta laneko osasunaren arteko koordinazioa bermatzea.

Patogenotasun handiko hegazti-gripeari (PHHG) buruzko informazioaren eguneraketa

EFSAk, ECDCk eta hegazti-gripearen EBko erreferentziako laborategiak gaixotasunari buruzko informazioaren eguneraketa argitaratu dute; izan ere, birusaren detekzio-kopuru ezohikoa hauteman da udan hegazti basati eta etxeko hegaztietan. Hortaz, etxeko hegaztiak PHHGrekin kutsatzeko arriskua areagotu da, udazkeneko migrazio-aldia datozen hilabeteetan hasiko baita. Bukatzeko, PHHG arintzeko estrategia egokiak eta jasangarriak definitzea eta inplementatzea gomendatzen da, hala nola infekzioa goiz hautemateko zaintza-estrategiak eta biosegurtasun-neurri egokiak.

Gaur egun, hegazti-gripea Europan egiaztatutako epidemiarik handiena eragiten ari da: 2.467 agerraldi hauteman dira eskortako hegaztietan eta 47,7 milioi hegazti sakrifikatu dira eragindako establezimenduetan. Halaber, itxian dauden hegaztietan 187 agerraldi jakinarazi dira eta patogenotasun handiko hegazti-gripearen 3.573 agerraldi, berriz, hegazti basatietan. **Aurten gaixotasunaren irismen geografikoa ezohikoa da.** Agerraldiak jakinarazi dira Svalbard uharteetan (Norvegia), Portugalgo iparraldean eta Ukrainako ekialdean, besteak beste; Europa osoan 37 herrialdeetan hauteman da.

2021eko udazkenean patogenotasun handiko hegazti-gripeak HPAI A (H5N1) lehenengo aldiz Atlantikoa gurutzatu zuen. Europatik Ipar Amerikara iritsi zen migrazio-bideen bitartez, eta epidemia larria eragin zuen eskortako hegaztietan, Kanadako hainbat probintzian eta Estatu Batuetako hainbat estatutan bereziki, eta hilkortasun handia eragin zuen hegazti basatietan.

Gaixotasunak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Europako Zentroak (ECDC) ondorioztatu du Europako biztanleria orokorra kutsatzeko arriskua **txikia** dela, eta profesionalki esposiziopean dauden pertsonen kasuan, berriz, **arrisku txikia eta ertaina**. Hala ere, ziurgabetasuna handia da, hegaztien artean kutsatzen ari den hegazti-gripearen birusa askotarikoa baita. Hala ere, kutsatuta dauden eskortako hegaztien produktuekiko esposizioa izan duten gizakien arteko transmisio-arriskua **hutsala** da.

Animalien artean kutsatzen diren hegazti-gripe birusek gaitasun zoonotikoa dute, eta, hortaz, ECDCk kontrol- eta jarraipen-neurriak ezartzea gomendatzen du animalia- eta gizaki-taldeetan. Neurri horien artean **genoma osoa sekuentziatzea** dago, agerraldiak sakonago ikertzeko aukera ematen baitu.

PHHGari aurre egiteko neurri hauek gomendatzen dira:

- Epe laburrerako, ertainerako eta luzerako prebentzio-estrategiak identifikatu eta ezartzea, batez ere hegazti-dentsitate handiko eremuetan eta hegazti-gripearen esposiziopean egoteko minberak diren ekoizpen-sistemetan.
- Hegazti kutsatuekin kontaktuan egon daitezken ugaztun eta pertsonen zaintza areagotzea, hegazti eta ugaztunen eta/edo pertsonen arteko eta ondoren pertsonen arteko transmisio-kasuak garaiz detektatzea errazteko. Esposiziopean egon diren pertsonen kasuan, ager daitezkeen arnas sintomak, sintoma neurologikoak edo konjuntibitisa zaintzea, esposiziopean egon eta hurrengo 10 egunetan.
- Animalia eta pertsonengan hautemandako birusen zaintza genomikoa egitea, osasun publikorako eta animalia osasunerako garrantzitsuak izan daitezkeen birusak azkar detektatzeko.

[Hegazti Gripearean kasu berri bat Bizkaiko basa hegazti batean](#)

Patogenizitate Handiko Hegazti Influenzaren (IAAP) H5N1 kasu berri bat atzeman dute egoera txarrean aurkitutako **broju** batean. Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzuak Muskizko La Arena hondartzan jaso eta Gorlizko Basafauna Berreskuratzeko Zentrora eraman zuten hegaztia. Bertan, laginak hartu zituzten gaixotasunak detektatzeko. Babes neurriak hartuz, brojua isolatu egin zuten laborategiko emaitzen zain. Handik hiru egunera hilik agertu zen.

[Hegazti-gripearen beste kasu bat baieztatu da Euskadin jasotako hegazti basati batengan](#)

Herritarren laguntzari esker Donostian aurkitutako zanga gaixo bat da. Foku berri hori maiatzean Gipuzkoan sai arreengan jakinarazitako beste biei gehitu behar zaie.

Patogenotasun handiko hegazti-gripearen (PHHG) beste kasu bat detektatu da partikular batek hegazti gaixo bat zegoela jakinarazi ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiko basozainek jaso duten zanga gaixo batengan. Zanga euskal kostaldean ohikoa ez den itsas hegaztia da; izan ere, ez dago ugaltze-koloniarik, eta normalean ez da gure kostaldera iristen, baldin eta ez badago gaixorik edo ahulduta.

Gaixotasun horren [Erreferentziazko Laborategi Nazionalak](#) baieztatu egin du **H5N1** azpimotako patogenotasun handiko hegazti-gripearen (PHHG) birusaren positiboa. Ondoren, hegazti-sektoreari jakinarazi zaio, **etxeko hegaztiak babes ditzan** hegazti basatiekin kontaktuan egotetik, kutsatzea saihesteko.

Europar bizitzen ari garen gaixotasun horren epidemiaren ondorioz (oraingoz larriena), hegaztien migrazio-garaia hasi zenetik, urte osoan zehar egiten den zaintzari esker aurkitu dute kasu hori. 2022ko uztailaren 28ra bitartean, PHHGren 5.349 kasu jakinarazi dira Europako 36 herrialdetan, nagusiki H5N1 anduiarenak: 2.348 kasu eskortako hegaztietan, 2.903 hegazti basatietan eta 98 itxian hazitako hegaztietan.

Hegazti-gripea gaixotasun birikoa da, hegaztiei baino eragiten ez diena, eta oso kutsakorra da hegazti-espezieen artean: infektatutako hegaztietan heriotza-tasa handia eragiten du, bai eta galera ekonomiko larriak ere hegazti-sektorean. **Hegazti-produktuak (haragia, arrautzak, gibel orea edo hegaztiz egindako edozein elikagai) kontsumitzea ez da arriskutsua pertsonentzat.**

Jarraian, Euskadin 2021-2022 denboraldian basa-hegaztiei buruz deklaraturako lehen fokuen albisteak kontsulta daitezke; eta mikrositean IAri buruzko informazio gehiago dago eskuragarri:

[Europako hegazti-gripearen eguneraketa](#)

EFSAk txosten zientifiko bat argitaratu berri du martxotik ekainera bitarteko Europako HGren egoera epidemiologikoari buruz.

Agentziaren txostenetik azpimarragarriena da patogenotasun handiko hegazti-gripearen (PHHG) aurreko denboraldi epidemikoa, 2021-2022, **Europar orain arte behatutako epidemia handiena**

dela; hain zuzen, zenbateko hauetara iritsi da guztira:

- **Eskortako hegaztiak: 2.398 agerraldi eta 46 milioi hegazti sakrifikatu. Frantzia** izan da herrialde kaltetuena, 509 eta 1.371 agerraldirekin, hurrenez hurren, eta 6,5 milioi hegazti sakrifikatu dira.
- **Hegazti basatiak: 168 baieztapen gatibu dauden hegaztietan eta 2.733 kasu hegazti basatietan.** Alemaniak (158) jakinarazi zituen gehien, eta ondoren, Herbehereek (98) eta Erresuma Batuak (48). Aldi horretan, 45 hegazti basatiren espezieetan baieztatu ziren, eta horien artean, hegazti urtarren 11 espezieetan eta **hegazti harraparien 9 espezieetan. Egungo aldiaren amaierara arte jakinarazi ziren, eta nagusiki harraparietan eta hegazti basatien beste espezie batzuetan jakinarazi ziren.**

2020-2021eko olatu epidemikotik hegazti basatietan behatutako **HPAI (H5) birusaren iraunkortasunak adierazten du endemikoa bihurtu ahal izan dela Europako hegazti basatien populazioetan;** horrenbestez, Europako eskortako hegazti, gizaki eta bizitza basatirako arriskuak urte osoan dirau, arriskua handiagoa izanik udazkeneko eta neguko hilabeteetan.

Eskortako hegaztietako agerraldien % 86 bigarren mailakoak izan ziren, eta birusa abeltegien artean hedatzeagatik. Hori dela eta, ezinbesteko garrantzia dauka HGOP ezabatzeko estrategia egoki eta jasangarriak zehazteak eta azkar inplementatzeak, hala nola biosegurtasun-neurri egokiak eta zaintza-estrategiak hegaztien ekoizpen-sistemetan garaiz antzemateko neurriak ezartzeko.

Azken txostena egin zenetik, lau infekzio jakinarazi ziren gizakietan A(H5N6) birusagatik, bi A(H9N2) birusagatik eta bi A(H3N8) birusagatik Txinan eta bat A(H5N1) birusagatik Ameriketako Estatu Batuetan. **Infekzio-arriskua baxutzat ebaluatzen da EBko biztanleria orokorrerako, eta baxua eta ertaina bitartean profesionalki arriskuan dauden pertsonentzat.**

[Hegazti-gripearen bi foku aitortu dira Euskadin](#)

H5N1 HGOP hauteman da Gipuzkoan aurkitutako bi sai arreetan

Bi kasu isolatu dira, gaixotasuna garraiatzeko gaitasun handirik ez duen espezie batean

Gipuzkoako Foru Aldundiko Basozainek bildutako putreak maiatzaren hasieran aurkitu zituzten Azpeitia eta Beasain udalerrien artean, eta maiatzaren 14an Aiako Harrian (Irun), hurrenez hurren.

Aurkikuntza hori hegaztien migrazio-aldian egiten den zaintzari esker egin da, Europa osoan fokuak agertu izanaren ondorioz. 2022ko maiatzaren 16ean, HGOPren 4.669 kasu aitortu dira Europako 36 herrialdetan, batez ere H5N1 anduia. Kasu horietako 2.207 etxeko hegaztienak izan dira, 2.373 hegazti basatienak eta 89 gatibu dauden hegaztienak.

Abereen osasunaren arloko osasun-agintariek, Euskadiko hegazti-sektorearekin batera, honako neurri hauek hartzea adostu dute:

- Animalien egoera klinikoa egiaztatzea, infekzioaren hautemate goiztiarrerako.
- Hegazti-ustiattegietan biosegurtasun-neurriak indartzea, bereziki hegazti basatiekin harremanetan jartzea saihesteko neurriak. Besteak beste, etxeko hegaztiak konfinatzea gomendatu da.

Neurri horiek autokontsumorako ustiategiei ere aplikatu behar zaizkie, birusa zoonotikoa delako, nahiz eta **transmisio-arriskua txikia izan**.

Bestalde, gogorarazten da hegaztiak oinarri dituzten okela, arrautza, foie gras eta zeinahi elikagaik, kutsatuta egongo balira ere, ez luketela arriskurik ekarriko pertsonentzat.

Hurrengo estekan hegazti gripearekiko informazio guztia aurkituko duzu:

[Indarrik gabe geratzen dira ustiategiaren hegazti-gripeari aurre egiteko neurriak](#)

AGINDUA, 2022ko apirilaren 1ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarenaren bidez, indarrik gabe uzten da honako agindu hau: Agindua, 2021eko abenduaren 28koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripearen aurka hartu beharreko prebentzio-neurriak ezartzen baitira.

Gaixotasunak ez du inolako eraginik Euskal Autonomia Erkidegoan, hegaztien migrazio-denboraldia amaitu da, eta, ondorioz, gaur egun dagoen osasun-arrisku txikia denez, 2021eko abenduaren 28ko Aginduan aurreikusitako neurriak kendu behar dira.

Agindu hau, Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, hau da, 2022ko apirilaren 12an.